Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 10a, osteguna — 47 — Jueves, a 10 de marzo de 2022

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei zuzendutako dirulaguntzen 2022ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2022ko martxoaren 1ean:

Diputatuen Kontseiluak, 2015eko otsailaren 10ean egindako batzarraldian, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei zuzendutako diru laguntzen oinarriak onartu zituen.

Bosgarren oinarriaren bigarren atalak zehazten du dirulaguntzak emateko jarraibideari ofizioz emango zaiola hasiera, organo eskudunak onartu ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko den deialdi publikoaren bidez.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei ezartzeari buruzkoak, aurreikusitakoaren arabera emango dira.

Dirulaguntza lerro hau 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan dago sartuta.

Deialdia onartzea da erabaki honen xedea, baimendu behar den gastuarengatik Diputatuen Kontseiluari baitagokio eskumen hori.

Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei zuzendutako dirulaguntzen 2022ko deialdia, erabaki honen eranskin gisa doana, ondorengo lerroentzat:

1. Gizarte eskuhartzeko programak egiteko dirulaguntzak.

2. Prebentzioko eta sentsibilizazioko programak egiteko dirulaguntzak.

3. Gizarte behar berrien eta gizarte arretaren inguruko ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko dirulaguntzak.

*Bigarren.* Baimentzea 1.221.233,00 euroko gastua, ondorengo kontu sail eta xede hauetan banatuta:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*Convocatoria de subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en el ámbito de los servicios sociales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022.*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 1 de marzo de 2022:

El Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada el 10 de febrero de 2015 aprobó las bases reguladoras de las subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en el ámbito de los servicios sociales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El apartado 2 de la base 5.ª establece que el procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las subvenciones previstas en el marco de esta convocatoria se concederán conforme a lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de mínimis.

La presente línea de subvención está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

Constituye el objeto del presente acuerdo aprobar dicha convocatoria, correspondiendo a este Consejo de Gobierno Foral la competencia para ello a la vista del gasto a autorizar.

Por todo ello, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria de subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en el ámbito de los servicios sociales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022, que se acompaña como anexo al presente acuerdo, para las siguientes líneas:

1. Subvenciones para la realización de programas de intervención social.

2. Subvenciones para la realización de programas de prevención y sensibilización.

3. Subvenciones para la realización de proyectos de investigación e innovación en caracterizar necesidades sociales emergentes y formas de atención social.

*Segundo.* Autorizar un gasto de 1.221.233,00 euros con el siguiente desglose por partidas presupuestarias y destinos:

EK\CV GAO-I-2022-01284

| Xedea<br>Destino | Zenbatekoa (€)<br>Importe (€) | Kontu saila<br>Partida |
|---|---|---|
| 1. Gizarte esku hartzeko programak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de programas de intervención social | 931.233,00 | 1.0801.010.481.00.01 |
| 2. Prebentzioko eta sentsibilizazioko programak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de programas de prevención y sensibilización | 250.000,00 | 1.0801.010.481.00.02 |
| 3. Gizarte behar berrien eta gizarte arretaren inguruko ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de proyectos de investigación e innovación en caracterizar necesidades sociales emergentes y formas de atención social | 40.000,00 | 1.0801.010.481.00.03 |

Aurreko zerrendak lehentasun ordena bat ezartzen du dirulaguntzen lerroen artean; beraz, horietariko baterako baimendutako gastua agortuko ez balitz, soberakoa lehentasunekoak direnetan aurreikusitako laguntzak osatzeko erabili ahal izango da.

Deialdi honentzat hasieran aurreikusitako kopurua handitu edo txikitu egin dezake zenbatekoaren arabera horretarako eskumena duen organoak, dirulaguntzak emateko ebazpena hartu aurretik eta deialdi berririk egin behar izan gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Hirugarren.* Deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko martxoaren 2a.—Imanole I. Eizmendi Galarza, Gizarte Politiketako Departamentuko idazkari teknikoa.
(1284)

ERANSKINA

*2022ko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei zuzendutako dirulaguntzena.*

1. *Araudia.*

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, goian aipatu dirulaguntzen 2022ko deialdia egin da. Dirulaguntza horien oinarriak Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluaren 2015eko otsailaren 10eko erabakiaren bidez onartu ziren (2015eko otsailaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 30. zk.).

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduak, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei ezartzeari buruzkoak, aurreikusitakoaren arabera emango dira. Deialdi honen barruan entitate bakar bati emandako minimis motako dirulaguntzak ezingo du guztira 200.000 eurotik gorakoa izan hiru zergaldietako edo-

La relación anterior implica un orden de preferencia entre las líneas de subvención de modo que, en caso de que no se agotara el gasto autorizado con destino a alguna de ellas, los importes sobrantes podrán ser utilizados para complementar las ayudas previstas en las que sean preferentes.

El importe inicialmente previsto en esta convocatoria podrá ser incrementado o disminuido por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía, en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y sin necesidad de una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

*Tercero.* Publicar la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.—La secretaria técnica del Departamento de Políticas Sociales, Imanole I. Eizmendi Galarza.
(1284)

ANEXO

*Convocatoria de 2022 de las subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en el ámbito de los servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

1. *Normativa.*

Conforme a lo dispuesto en el artículo 21.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se efectúa la convocatoria para el año 2022 de las subvenciones arriba citadas, cuyas bases reguladoras se aprobaron mediante acuerdo de 10 de febrero de 2015 del Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 30, de 16 de febrero de 2015).

Las subvenciones previstas en el marco de esta convocatoria se concederán conforme a lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de mínimis. La subvención total de mínimis concedida a una única entidad en el marco de esta convocatoria no podrá superar los 200.000

EK\CV GAO-I-2022-01284

zein alditan, kontuan hartuta aldi horretan jasotako gainerako laguntzak; horrela aurreikusten baitu aipatutako erregelamenduak 3.2 artikuluan.

2. *Aurrekontu kredituak.*

Deialdi honetarako, aurrekontuko 1.221.233,00 euro xedatu dira guztira, modu honetan banatuta:

euros durante cualquier período de tres ejercicios fiscales, habida cuenta de las otras ayudas también percibidas durante este mismo período, de conformidad con lo previsto en el artículo 3, apartado 2, del Reglamento mencionado.

2. *Créditos presupuestarios.*

La dotación presupuestaria para esta convocatoria asciende a la cantidad total de 1.221.233,00 euros, de acuerdo con el siguiente desglose:

| *Xedea*<br>*Destino* | *Zenbatekoa (€)*<br>*Importe (€)* | *Kontu saila*<br>*Partida* |
|---|---|---|
| 1. Gizarte esku hartzeko programak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de programas de intervención social | 931.233,00 | 1.0801.010.481.00.01 |
| 2. Prebentzioko eta sentsibilizazioko programak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de programas de prevención y sensibilización | 250.000,00 | 1.0801.010.481.00.02 |
| 3. Gizarte behar berrien eta gizarte arretaren inguruko ikerketa eta berrikuntza proiektuak egiteko dirulaguntzak /<br>Subvenciones para la realización de proyectos de investigación e innovación en caracterizar necesidades sociales emergentes y formas de atención social | 40.000,00 | 1.0801.010.481.00.03 |

3. *Baldintzak.*

1. Laguntza hauen hartzaile izan daitezke baldintza hauek betetzen dituzten entitateak:

a) Irabazi asmorik gabeko entitate pribatua izatea, legez behar bezala eratua.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta egotea.

c) Ez eragitea onuradun izateko debekuek: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan aurreikusitakoek.

d) Egitura nahikoa edukitzea programaren helburuak beteko direla bermatzeko.

e) Gizarte Politiketako Departamentutik lehenago jasoak dituzten dirulaguntzei dagozkien gastuak behar den neurrian eta aurreikusitako epeetan zurituak izatea.

f) Lehen oinarri orokorrean definitutako pertsonekiko, taldeekiko edo kolektiboekiko esku hartzea izatea helburutzat, talde horietan sentsibilizazioan eta prebentzioan lan egiten dutenak sartuta (soilik 3. lerroko dirulaguntzen kasuan).

2. Berariaz baztertuta daude laguntza hauek eskuratzeko:

a) Estatuaren, Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren, tokiko erakundeen eta aurrezki entitateen mendeko entitateak.

b) Sartzeko eta parte hartzeko askatasuna mugatzen duten entitateak.

c) Helburuei, onartze sistemari, funtzionamenduari, ibilbideari edo jarduerari dagokienez, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioaren kontra doazen entitateak.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuarekin lankidetza hitzarmen bat sinatuta duten erakundeak (soilik 1. lerroko dirulaguntzen kasuan).

3. Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan aurreikusitako debekuek eragiten ez diotela egiaztatzeko, eta bereziki, zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzeko, erantzukizuneko adierazpena egin dezake eskatzaileak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emango dion ereduari jarraikiz. Erantzukizuneko adierazpena eskaerarekin batera aurkeztu beharko du.

3. *Requisitos.*

1. Podrán acogerse a estas ayudas las entidades que cumplan los siguientes requisitos:

a) Tratarse de entidades privadas sin ánimo de lucro, debidamente constituidas.

b) Estar inscritas en el Registro Foral de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

d) Disponer de la estructura suficiente para garantizar el cumplimiento de los objetivos del programa.

e) Haber justificado suficientemente y en los plazos previstos los gastos correspondientes a las subvenciones recibidas con anterioridad desde el Departamento de Políticas Sociales.

f) Tener como fin la intervención con las personas, grupos o colectivos definidos en la base general 1.ª, incluyendo dentro de este campo a las que trabajan en la sensibilización y en la prevención (sólo para las subvenciones de la línea 3).

2. Quedan expresamente excluidas de acceder a estas ayudas:

a) Las entidades que dependan del Estado, de la Administración de la Comunidad Autónoma, de las corporaciones locales y de entidades de ahorro.

b) Las entidades que establezcan limitaciones a la libertad de ingreso y participación.

c) Las entidades cuyos fines, sistema de admisión, funcionamiento, trayectoria o actuación sean contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

d) Las entidades que tienen suscrito un convenio de colaboración con el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa (sólo para las subvenciones de la línea 1).

3. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones que se establecen en el artículo 12, apartados 2, 3 y 4, de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en particular, la de encontrarse al corriente en las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, podrá realizarse mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud, según modelo que facilite el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-01284

*4. Dokumentazioa.*

1. Eskaera bakar bat aurkeztu ahal izango da dirulaguntza lerro bakoitzeko. Hala ere, eskaera bakoitzak programa bakarra edo gehiago bildu ahal izango ditu, gehienez lau.

2. Ardurapeko adierazpena, deialdi honetan eranskin gisa doan ereduaren araberakoa, eta eskaera telematikoan ere sartzen dena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritakoari jarraiki, entitate onuradun izaera lortzeko debekurik ez duela adierazten duena, baita emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin zerikusia duena ere. Eta enpresak egungo urte fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako «de minimis» laguntzei buruzkoa.

3. Datuak komunikatzeko formularioak internet bidez aurkeztu beharko dira nahitaez, sinadura elektronikoa edo pasahitza erabilita. Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuan, eta 2013ko urtarrilaren 23ko 102/2013 Foru Aginduan –Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuko dirulaguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzekoan (2013ko urtarrilaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 19. zk.)–, xedatutakoari jarraikiz ezartzen da obligazio hori.

Eransten diren eskaera eta dokumentazio osagarria internet bidez aurkeztuko dira dirulaguntzen atarian barrena, arestian aipatutako 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuari eta 2013ko urtarrilaren 23ko 102/2013 Foru Aginduari jarraikiz. Atari hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dago (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak).

4. Deialdi honi buruzko informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak).

5. 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 53.1.d) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, entitate eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jada Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dauden dokumentuak. Halakoetan, eskaeran adierazi beharko da zein egunetan eta organotan edo bulegotan aurkeztu ziren dokumentu horiek; edo zein organok eta noiz egin zituen.

6. Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun balioduneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

*6. Eskaerei buruzko erabakia hartzea eta jakinaraztea.*

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, prozeduraren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordezkatuko du eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik.

*4. Documentación.*

1. Únicamente podrá presentarse una solicitud por cada línea de subvención. Cada solicitud podrá incluir la realización de uno o varios programas, hasta un máximo de cuatro.

2. Declaración responsable, conforme al modelo y que se incluye en la solicitud telemática, de no hallarse incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como aquellas referidas a la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres y sobre ayudas «de mínimis» recibidas por la empresa en el año fiscal actual y los 2 años precedentes.

3. De conformidad con lo dispuesto en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en la Orden Foral 102/2013, de 23 de enero, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Políticas Sociales (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 19, de 29 de enero), los formularios de comunicación de datos deberán presentarse obligatoriamente vía Internet, utilizando la firma electrónica o la clave operativa.

La presentación de la solicitud que se acompaña y la documentación complementaria vía Internet se realizará a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones), en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, y en la Orden Foral 102/2013, de 23 de enero, antes referidos.

4. La información de la presente convocatoria estará disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones).

5. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En todo caso, se deberán indicar en la solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

6. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*5. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, contado a partir del día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*6. Resolución de las solicitudes y notificación.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución del procedimiento de concesión será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, pudiendo sustituir dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

EK\CV GAO-I-2022-01284

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

| ESKAERA | SOLICITUD |
|---|---|
| 2022ko deialdiko eskaera: Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuen eremuan diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateei zuzendutako dirulaguntzena. | Solicitud a la convocatoria de 2022 de las subvenciones a entidades de iniciativa social sin ánimo de lucro que desarrollan su labor en el ámbito de los servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. |

**1.- ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA ENTIDAD SOLICITANTE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Erakundearen izena**<br>**Nombre de la entidad** | | | |
| **Helbidea**<br>**Dirección** | | | |
| **Herria**<br>**Localidad** | | **Posta Kodea**<br>**Código Postal** | |
| **Telefonoa**<br>**Teléfono** | | **Telekopia**<br>**Fax** | |
| **Helbide elektronikoa**<br>**Correo electrónico** | | | |
| **Web orria/WWW**<br>**Pagina Web/WWW** | | | |
| **IFK**<br>**CIF** | | **Elkarteen erroldako zk.**<br>**Nº registro asociaciones** | |
| **Erregistroa zehaztu**<br>**Especificar Registro** | | | |
| **Eraketa urtea**<br>**Año constitución** | | | |

**2.- ERAGITEKO GAKO EDO ZIURTAGIRI DIGITALAREN IDENTIFIKAZIOKO DATUAK / DATOS IDENTIFICACIÓN CLAVE OPERATIVA O CERTIFICADO DIGITAL**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Izena**<br>**Nombre** | | | |
| **Kargua**<br>**Cargo** | | **NA**<br>**DNI** | |

EK\CV GAO-I-2022-01284

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

**3.- LEGEZKO ORDEZKARIA / REPRESENTANTE LEGAL**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Izena<br>Nombre** | | | |
| **Kargua<br>Cargo** | | **NA<br>DNI** | |
| **Telefonoa<br>Teléfono** | | **Telefonoa 2<br>Teléfono 2** | |

**4.1.- ERAKUNDEAREN FUNTZIOA / FUNCION DE LA ENTIDAD**

**4.2.- ERAKUNDEAREN HELBURUAK / OBJETIVOS DE LA ENTIDAD**

**4.3.- ERAKUNDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZU MOTAK / TIPOS DE SERVICIOS QUE PRESTA LA ENTIDAD**

**4.4.- APLIKAZIO EREMUA / ÁMBITO ACTUACIÓN**

**5.- ERAKUNDEAK ARTATZEN DITUEN GIZA TALDEEN AZALPENA / DESCRIPCION DE LOS COLECTIVOS QUE ATIENDE LA ENTIDAD**

**6.- ENTITATEAREN GIZA BALIABIDEAK (PARTE HARTZAILE KOPURUA) /RECURSOS HUMANOS DE LA ENTIDAD (Nº DE PERSONAS)**

**7.- ZENTROAK / CENTROS**

**8.- PROGRAMEN IZENA ETA ZENBATEKOA/DENOMINACIÓN DE LOS PROGRAMAS Y COSTES**

*Lekua eta data / Lugar y fecha*

*……………………… 2022ko, ………………………..(a)ren……a*

*En ………………………., a……. de ……………………………de 2022*

*Entitatearen ordezkaritza legala duenaren sinadura eta entitatearen zigilua*
*Firma de quien ostenta la representación legal y sello de la entidad*

EK\CV GAO-I-2022-01284

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

ARDURAPEKO ADIERAZPEN EREDUA

...................................................................................................
................................................. jaunak/andreak, adinez nagusiak, …................... zenbakiko NA eta ...................................................................................................
. ............................................... helbidea dituenak, ........................................................................enpresaren ordezkaritzan (IFZ:..........................................., sozietate helbidea:
...................................................................................................
..................), diharduenak adierazia:

**1.-** Ez bera ezta berak ordezkatzen duen enpresa ere ez daude sartuta martxoaren 27ko 3/07 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeretan.

**2.-**  BAIMENA EMATEN DU
 EZ DU BAIMENIK EMATEN

eskumena duten organoek laga diezaioten dirulaguntza kudeatzen duen administrazio publikoari ordezkatutako enpresari buruzko informazio hau:

 Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria. (*)
 Jarduera ekonomikoaren datuak (JEZ). (*)

(*) Lagapen hori ez badu onartzen, organo eskudunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, hala eskatzen zaionean.

**3.-** Ez zaio zigor administratibo edo penalik ezarri sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoak, ezartzen duenaren arabera.

**4.-** (Markatu dagokion laukia)

 Ez dut minimis laguntzarik jaso 2019, 2020 eta 2021ko zerga ekitaldietarako.

 Minimis araubideko honako laguntza hauek jaso ditut 2020, 2021 eta 2022eko zerga ekitaldietarako (minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 24ko 1407/2013 Araudiaren arabera).

MODELO DECLARACION RESPONSABLE

D./Dª……………………………………………………………
……………………., mayor de edad, con DNI nº…………………., con domicilio en ……………………………………………………………………
……………., en representación de ……………………………………………………………………
.. con NIF………………………………………y domicilio social en ……………………………………………………………………
……………..declara:

**1º.-** Que no concurren ni en él/ella ni en la empresa a la que representa ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**2º.-**  AUTORIZA
 NO AUTORIZA

expresamente para que los órganos competentes procedan a ceder a la Administración Pública gestora de la subvención la siguiente información relativa a la empresa representada:

 Acreditación de cumplimiento con sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. (*)
 Datos de su actividad económica (IAE). (*)

(*) En caso de no autorizar dicha cesión, deberá aportar, cuando se le requiera, los correspondientes certificados administrativos emitidos por los órganos competentes.

**3º.-** No ha sido sancionada, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**4º.-** (Marque la casilla correspondiente)

 Que no ha obtenido ninguna ayuda de minimis para los ejercicios fiscales de las anualidades 2019, 2020 y 2021.

 Ha obtenido las siguientes ayudas sujetas al régimen de minimis, según el Reglamento (UE) 1407/2013 DOUE, L nº 352, 24.12.2013 de la Comisión, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del TFUE a las ayudas de minimis, para los ejercicios fiscales de las anualidades 2020, 2021 y 2022:

EK\CV GAO-I-2022-01284

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Gizarte Politiketako Departamentua

| **ERAKUNDE EMAILEA** ORGANISMO CONCEDENTE | **DEIALDIA** CONVOCATORIA | **ONARPEN DATA** FECHA APROBACIÓN | **EMANDAKO ZENBATEKOA** IMPORTE CONCEDIDO |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | **LAGUNTZA GUZTIRA** TOTAL AYUDA | |

**5.-** Deialdi honetan proiektu bererako eskatutako edo eskuratutako dirulaguntzak honako hauek dira:

**5º.-** Que las subvenciones solicitadas y/o obtenidas para el mismo proyecto de la presente convocatoria han sido las siguientes:

| **ERAKUNDE EMAILEA** ORGANISMO CONCEDENTE | **DEIALDIA** CONVOCATORIA | **ESKAERA EDO ONARPEN DATA** FECHA DE SOLICITUD O APROBACIÓN | **EMANDAKO ZENBATEKOA** IMPORTE CONCEDIDO |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | **LAGUNTZA GUZTIRA** TOTAL AYUDA | |

**6.-** Aitorpen honetan nahiz eskaeran eta eskaerari erantsita dauden dokumentuetan azaltzen diren datuak egiazkoak dira, eta ezagutzen eta onartzen ditu Laguntza Programako araudian ezarritako baldintzak.

**6º.-** Que los datos contenidos en la presente Declaración como en la solicitud y el conjunto de documentos asociados a dicha solicitud de ayuda se ajustan a la realidad y que conoce y acepta las condiciones establecidas en la normativa reguladora del Programa de Ayudas.

**7.-** Badaki, ez-betetzeek edo emandako informazioaren eta dokumentazioaren zuzentasun ezak erantzukizun penal, administratibo edo zibilak ekar ditzaketela.

**7º.-** Que conoce que el incumplimiento o la inexactitud en la información y documentación suministradas pueden dar lugar a responsabilidades penales, administrativas y civiles.

**8.-** Ezagutzen eta onartzen ditu abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babesteari buruzkoak, ezartzen dituen baldintzak.

**8º.-** Que conoce y acepta las condiciones que establece la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal.

*Lekua eta data / Lugar y fecha*

*……………………… 2022ko, …………………………(a)ren……a*

*En ………………………., a……. de ……………………………de 2022*

*Entitatearen ordezkaritza legala duenaren sinadura eta entitatearen zigilua*
*Firma de quien ostenta la representación legal y sello de la entidad*

EK\CV GAO-I-2022-01284